

**BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAK 75 URTE:
P. ABARRATEGI ETA E. URIARTE POXPOLIN ANTZOKIAN**

1. BECetik Poxpolin zaharrera: Lehenengo Bertsolari Eguna

Aurten hirurogeita hamabost urte betetzen dira Lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatu zela. Izan ere, 1935eko urtarrilaren 20an, hogeitabertsolari lehiatu ziren Donostiako Kursoal zaharreko Poxpolin aretoan¹, irabazlearen txapela janzteko. Harrezkero hamabost txapel jokatu dira², eta iazkoan (2009-12-13), Barakaldoko BCEn, hamalau mila bertsozaleren aurrean, Maialen Lujanbio hernaniar gazteak bereganatu zuen txapela. Bera izan da ohore hori lortu duen lehenengo andrazkoa. Barakaldotik Donostiara egingo dugu jauzi, txapelketa na-

¹ “Kantauri itsasoak orroka astinduz edo apalki miaztuz, Donostiako Poxpolin Jauregia. Kursoaleko soto zabal amaigabekoan, lehen, hoben lizuneko jauregi; gero, aingeru errugeen jostaleku. Bertako areto ederrean ospatu zen Lehenengo Bertsolari Eguna” (Zubimendi, Joseba: “Poxpolin Jauregian”, in *Bertso minez* [Euzko Deya, 1939-03-12], Alberdania, Irun, 2002, 42-44). Liburuak honako azpititulu hau dauka: “Idazle baten gerla eta bertso oroitzapenak”, eta bertan Koldo Izagirrek J. Zubimendik (1897-1939) 1939ko otsailaren 5etik irailaren 10era *Euzko Deya* aldizkarian argitaratutako artikulua batzen ditu.

² Hona hemen txapeldunen zerrenda eta urteak: Basarri, 1935; Txirrita, 1936; Basarri, 1960; Uztapide, 1962, 1965 eta 1967; X. Amuriza, 1980 eta 1982; S. Lizaso, 1986; J. Lopategi, 1989; A. Egaña, 1993, 1997, 2001 eta 2005; eta M. Lujanbio, 2009.

gusiak diamantezko ezteiak ospatzen dituen honetan, eta txapelketaren inguruko zertzelada batzuk eman eta gero, bertan egon ziren bizkaitar bertsolari biengana joko dugu, gorazarre txiki bat egiteko asmoz.

Joseba Zubimendik kontatzen digunez³, Lehenengo Bertsolari Eguna ospatzeko ideiak jazoera bitxi baten dauka oinarria. Udazkena zen, eta Donostiako Eusko Gaztediko areto berrian jai giroa zen nagusi. Gazte aldra bat sartu zen aretoan alai, kantari, berrikerari... Gazteen artean bazen bat harroxko agertzen zena, eta nabarmenkeriak egiteari uzten ez ziona. Egoera gainez egiten hasi zenean, Iñaki Eizmendi, *Basarri* gaztea, bertsotan zuzendu zitzaion gazte nabarmenari:

Aizazu gazte, lagun nerea,
zertan zabilza orrela?
Ez al dakizu ainbat jaun prestu
ortik begira daudela,
era ortako jolasketarik
gutxi maitatzen dutela?
Egizu kontu zuk Donostiko
Euzko Gaztedin zaudela;
umekeriak baztatu itzazu
ta ibili gizon bezela!

“Bertsoaren indarra!”, diosku Joseba Zubimendik. Hantxe bertan amaitu ziren gazte drogoaren erronkak eta putzak: harrokeriak urtu eta gangarkeriak aienatu egin ei zitzaizkion gazte nabarmenari. Antza, horrek guztiak zer pentsatua eman zien bertara baturiko batzuri:

“Bertso batek honelako indarra izanik, zenbat eta zenbat egin lezakete bertsolariek, bide zuzenean jarrita, gure egiaren zabalkunderako! Hau izan zen une hartako oldozkuna. Une hartatik hasi zen Bertsolari Egunaren jaiotza”.

³ “Bertsolari egunaren sortzea”, in *Bertso minez* [Euzko Deya, 1939-03-05], 37-40.

Holako egunak antolatzeko asmoa ez zen berri-berria⁴. Izan ere, martxan zeuden ordurako Euskera Egunak, Olerti Egunak, Antzerti Egunak..., *Euskaltzaleak* elkarteak antolatuta eta babestuta. Aitzolek-eta asmo sendoa zuten bertsolaritzari taberna-eta sagardotegi-sunda kendu, eta bertsolaria duintasun berri batekin eroateko antzoki, plaza, eliza eta ospakizun nagusi guztietara⁵. Edozelan ere, Bertsolari Egunak antolatzeko asmoa, zergatik edo hargatik, atzeratu egin zen behin baino gehiagotan, harik eta 1935eko urtarrilaren 20an, San Sebastian egunez, ospatu zen arte.

Txapelketa arrakastatsua

Orduko egunkari eta aldizkarietako titular nagusiei erreparatzen badiegu, esan genezake Lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusia arrakastatsua izan zela oso. Hona hemen zelan zabaltzen zuen *Argia* astekariak hurrengo domekako zenbakia: “Gure ezagueran Donostiñ euskera alde egin dan jairik ede-

⁴ Lehenengo Bertsolari Gudia 1930ean antolatu zuen Euskaltzaleak taldeak. Bertsozko gudia prestatzeko, Lizardi, Jautarkol, A. M. Labaien, Erauskin bertsolaria eta Aitzolek batzar bat egin zuten Alegia herrian. Bileran, aurreko bertsolari-lehiaketetan esperientzia luzea zeukan Iñaki Uranga izan zuten lagun. Hurrengo txapelketen hasikintzat har daitekeen jaialdi-gudu hori Donostiako “Centro Católico” antzokian egin zen, eta Toribio Altzaga omendu zuten bertan. Parte hartzaileak honakook izan ziren: Agirre, Bitoria, Lujanbio, Telleritxiki, Txirrita eta Zabaleta. “Txapeldun, ao batez, Bitoria aukeratu genduan”, diosku Aitzolek. (Zubimendi, Joseba: *Bertsolari-Guduak 1935-1936*, Euskaltzaleak, Donostia, 1936). Gipuzkoako Foru Aldundiak edizio fakzimitil bat argitaratu zuen 1985ean, lehenengo txapelketaren 50. urteurrenaren inguruan, hain zuzen ere. Aipamen hau (22. or.) eta hurrengoak edizio fakzimitil horri dagozkio.

⁵ “*Aitzol* ospatsuak, gai oni buruz, bere atzeneko itzaldian onela zesan: *Bertsolariak izandu dira gure edestia gorde digutenak; gure erriaren poz ta atsekabeak, abestuz, eunkiz-eunki guregana iritxi-azi dituztenak, gure adimen argiko bertsolariak.* (...) Baiñan aspaldi xamar ontan, erriaren gogonaiak utzirik, or zebiltzan bertsolariak utskeriko gaiak abesten, errien parregarri. Erri-abeslari auek, bide zuzenera ekartzeko asmoz sortu zan yai au” (*Bertsolari Guduak 1935-1936*, 29. or.).

rrena, igandekoa izantzán. Hogeí bertsolari, ta Euzkadíko onenetakóak gañera, aurkeztu ziran bertsolari gudara; ta lenengo saria *Basarri* idazle argi ta bertsolari jatorrarentzat izantzán⁶. Erdarazko egunkarietan ere –euskal kulturaren aldekoetan, bereziki–, oihartzun zabala izan zuen ospakizunak: “El día del bertsolari fué una manifestación radiante del alma artística de la raza vasca”⁷; “Una fiesta inolvidable”⁸...

Esandako moduan, hogeí bertsolarik⁹ hartu izan zuten parte txapelketa historiko honetan. Euretárico hamaseí gipuzkoarrak ziren: Alkain, Basarri, Erauskin, Etxeberria, Kortatxo, Lexo, Lujanbio, Mintegi, Nekezabal, Sorozabal, Telleritxiki, Txapel, Txirrita, K. Zabaleta, J. Zabaleta, eta Zepai; bi ipartarrak: Larralde eta Matxin; eta, gainontzekoak, beste bi, bizkaitarrak: Abarrategi eta Uriarte.

Epaimahaia honako gizonok osotzen zuten: Jose Ariztimuño *Aitzol* (Euskaltzaleak elkartearen izenean), Joseba Zubimendi (Eusko Gaztedi taldearen izenean), Toribio Altzaga, Joseba Olaizola, Txomin Olano eta Manuel Lekuonak¹⁰. Puntuak ema-

⁶ *Argia*, 720, 1935-01-27, 1. or.

⁷ *El Día*, 1935-01-22, 5. or.

⁸ Jose de Artetxe: *Euzkadi*, 1935-01-25, 1. or. Esan beharra dago txapelketa-
ren inguruko egunetan artíkulu ugari ere ugari idatzi izan zirela, orduko idazlerik esanguratsuenek idatziak: “Una dinastía de bertsolaris” (Aitzol, *Euzkadi*, 1935-01-19); “Bertsolariaren Eguna” (Manuel Lekuona, *Argia*, 1935-01-20); “¿Qué es el bertsolari? Hoy, en el día de su consagración” (Aitzol, *Euzkadi*, 1935-01-20); “El Primer Día del Bertsolari. La fiesta resultó un acto bellissimo y una demostración del elevado valor artístico del bertsolarismo” (*Euzkadi*, 1935-01-20); “Bertsolari-Eguna dala-eta” (Jautarkol, *Argia*, 1935-01-20); “El día del bertsolari” (Jautarkol, *El Día*, 1935-01-20); “Ante la fiesta de hoy. Maestro de bertsolaris” (Lauaxeta, *Euzkadi*, 1935-01-20)...

⁹ “Aldaia, asteasuarra eta Zailpuru oiartzuarra etziran azaldu ta beren exerlekuak utzik gelditu ziran” (*Bertsolari-Guduak 1935-1936*, 32. or.).

¹⁰ Txapelketa egin zen eguneko alean, *Argia* aldizkariak honako epaimahai hau iragartzen eban: “Euzkeltzale Bazkunaren izenean: Ariztimuño jauna. Eusko Gaztediaren izenean: Zubimendi jauna. Eta beste lau jaun argi auek: Altzaga tar Toribi, *Orix*e olerkaria, Juxto Oyarzabal ezaguna eta Olaizola tar Joseba txauenskandaria” (“Bertsolari-Gudaketa nola egingo dan”, *Argia*, 1935-01-20, 1. or.). Ikusten dugunez, azken orduko aldatetak egon ziren epaimahaian.

teko era zuzena bezain sinplea izan zuten epaimahaikoek: bertso *oso txarrari* 0; *txar-xamarrari* 5; *on-xamarrari* 10; *onari* 15; eta *oso onari* 20 puntu. Azken epaia ematean, zertan oinarritu ziren azaldu zuten epaimahaikoek: “bertsolarien sorpena, irudipena, bertsoarako erreztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oiñen berdintasuna”. Era berean, bertsolariak “gaiak erabilli zituzten edo ez; eta bakoitzari emandako ogibidearen yabe egin zan edo ez” ere, kontuan hartu zuen epaimahaiak.

Txapelketak ekintza osagarri batzuk izan zituen; izan ere, aurreko ostiralean, Jautarkol olerkari ezagunak Xenpelar bertsolariari buruzko berbaldi bat eman zuen, Laborda abadeak kantatutako bertsoen laguntzarekin. Bide beretik, bezperan, larunbat iluntzean, Dionisio Azkue *Dunixi* idazleak Bilintxen bertso gintza aztertu zuen, Olaizola, Zabalbeaskoa eta Lizarraga kantariak lagunduta.

Igandea helduta, goizeko hamarretarako jendetza ikaragarria zegoen antzokiaren kanpoko aldean, eta hamar t´erdietarako Poxpolin zaharra bertsozalez gainezka egoan –hiru mila pertsona inguru–, bertsolariak gehienak ere, bertan zeudela¹¹. Saioa hamaika-hamaiketan hasi zen Aitzolen berba batzuekin¹². Gero Joseba Zubimendi gai-jartzaile eta saio-zuzendariak era klasikoan bideratu zuen lehenengo ariketa, bertsoz:

Ara bertsolarien
gudua eratu,
onekin gure izkuntza
nairikan goratu.
Bakoitzak nai duena
lezake kantatu;

¹¹ *Argia* astekariak zioenez, sarrera dohainik izan zen: “Orra itz gutxitan azaldu, igandean, Poxpolin teatroan, goizeko amaiketan egingo dan gudaketaren berri. Eta sarrera debalde izango da...!” (*Argia*, 1935-01-20, 1. or.).

¹² “Ariztimuño jaunak bertsolari-gudaketa antxiña-antxiñan egiten zan bezela egingo dala dio. Eta nola egingo dan esan ondoren ematen zaio asiera bertsolari-gudari” (*Argia*, 1935-01-27, 1. or.).

doiñun azke zerate
 gaia aukeratu;
 baiñan beti bertsotan
 zuek gogoratu
 euskaldun zeratela
 ta ongi mintzatu.

Bina bertso kantatu behar izan zituzten bertsolariek lehenengo saio honetan. Eurak jakitun zeudenez, posible izan zuten, aurretiaz, luzimenduari begira pieza elaboratuak prestatu eta bertan kantatzea, denek ez zuten egin baina. Basarrik, ostera, epaimahaian Aitzolek-eta gustura entzuteko moduko bertsoak kantatzeari ekingo dio, garaiko Euskal Pizkundeko iruditaria erabilia: “Bertsolariak eman diote / Txeko erriari gorantz, / *Mireio* batek edergallutan / yosia zuen Provenza...”. Hasieratik bete-betean asmatu dau Basarrik. Aitzolek nahi zukeen bertsolari eredugarri hura begien aurrean zeukan:

“Txekiako herria, Mistralen *Mireio*, Provenza... *Euzkadi* eta *El Día*-n kolaboratzaile den Basarri gazteak erabili dituen erreferentziak bertso munduan zeharoan berriak izanagatik, Pizkundek, eta batez ere Aitzolek propaganda legez prentsan egunero darabiltzanak dira. Gaiari heltzeko eragatik soilik, zuritik beltzerakoa da batetik bestera, Txirritaren bruxatik Basarriren gorbataro dagoen alde”¹³.

Bertsolaritzaren barne aldaketa horren inguruan ez dira ahaztu behar Kepa Enbeita *Urretxindorra*-ren ekarria eta eragina, nahiz eta gerra aurreko urteotan ez zuen sarri kantatzen ohiko bertso-saioetan. Joxerra Garziaren hitzetan:

“Cuando se habla del proceso que condujo al bertsolarismo de las sidrerías a los teatros, se suele mencionar exclusivamente a Basarri como principal artífice del cambio, olvidando que Kepa Enbeita había enseñado el camino a seguir ya antes de la guerra. Basarri conocía a Kepa Enbeita, pues en las escasas

¹³ Aranbarri, Iñigo: *Gure Mendea. Ehun urte euskal kulturaren*, Argia, Donostia, 1999, 96. or.

intervenciones en sesiones bertsolarísticas *normales* en las que intervino Urretxindorra al final de su segunda etapa, solía hacerlo acompañado, entre otros, por el entonces jovencísimo Basarri¹⁴.

Bigarren saioan bertsolariek hiruna bertso abestu zituzten. Kasuon hamarreko nagusia izan zen Zubimendik bertsoz eskatutako neurria (“Limosnatxo bat” doinua erabilia), gaia honako hauxe zela: “Euskel izkuntza galtzen ari da / ta galtzen ba´da euskera, / Euskalerriko seme guztiak / betiko galduak gera”. Basarrik eman zion hasiera saioari, eta Jautarkol olerkariaren eta Arana Goiriren aipuez hornitu zituen bere bertsoak, zenbait esaldi hitzez hitz erabilia¹⁵.

Bertsozaleak ondo dakienez, gai horrexen inguruan abestu zuen Txirritak “Larogei urte gaiñean ditut” bertso historikoa. Izan ere, gainezka egin zion lege zaharreko bertsolari beteranoari bere ironia finak. Aurrean gazte bat zeukan gorbata jantzita; euskara jaso zerabilen gazte hark; gaztearen aipamen kulturalak-eta urrun ere urrun sentituko zituzkeen Txirrita zaharrak... Beraz, epaimahaian zegoen Aitzol abadea seinالاتuz, bere egoeraren berri maisuki eman zien Poxpolin antzokira batutako bertsozaleei¹⁶:

¹⁴ Garzia, Joxerra: “El bertsolarismo del siglo XIX al XXI”, in Urkizu, Patri (zuz.): *Historia de la Literatura Vasca*, UNED Ediciones, Madril, 2000, 402-479.

¹⁵ Bigarren bertsoan: “Ara nolatan mintzatzen zaigun / gure Yauregi zintzoa: / *Euskalerrria euskerik gabe / bai dala erri gaixoa, / maasti orritsu ederra baiña / mats alerik gabekoa*!”. Bide beretik, hirugarrenean: “Irakasleak bezela daukat / nik ere aitortu naia, / au esanikan yoan zitzaigun / Arana Goiri aundia: / *Il naiago det ikusi baiño / Aberriaren amaia*!”.

¹⁶ “Bertso onek algara ederrak egin-azi zituan. Izan ere bukaeran buru-eskuakin Ariztimuño apaiza erakutsiaz, maixutat bera aukeratua zeukala adierazten zuan.” (*Bertsolari Guduak 1935-1936*, 40. or.).

Larogei urte gaiñean ditut,
 nago anketako miñez,
 Donostia´ra etorria naiz
 erren aundia egiñez.
 Bi bastoiekin txit larri nabil
 pausorik eman eziñez.
 Euskera ia aztu zait eta
 erderarikan yakin ez,
 maixu batekin eskolan laxter
 asi bear det latiñez!

Hirugarren saioan bertsolariak hiruna bertso abestu behar izan zituzten, Zubimendi jaunak puntua jarrita: “Asi dezagun berriz / bertsoan saioa, / nik oiñak emanikan / or yarraitzekoa”. *Bertsolari Guduak 1935-1936* liburuan, zein *Yakintza* aldizkariaren 13. zenbakian (1935-ilbeltz-otsaila), saio honetako hainbat bertso irakur daitezke.

Laugarren eta azken saioan, ofizioak emanda, bertsolari bakoitzak bost bertso abestu zituen. Ofizioen banaketa bertso-saioaren hasieran egin zen, baita nork norekin kantatu behar zuen zehaztu ere. Jarduera honetan, orduko prentsan Matxin (ardo-saltzailea) eta Larralde (edalea) ipartarrek eginiko saioa goraiatzen zen: “Aien esakera zorrotz eta barregarriak! Aien alkarri ziri-sartzeak!”¹⁷. Hamahiruna bertso kantatu ostean, txapelketa eguerdiko ordu bietan amaitu zen. Hiru orduko lehia biziak asetuta utzi zituen Poxpolin antzokira hurbildutako euskaltzaleak.

Ebatzia, baina, Eusko Etxean eginiko bazkaria amaitu arte ez zen aditzera eman: txapelduna, aho batez, Basarri; bigarrena, Matxin; hirugarrena, Zepai; eta laugarrena, Alkain¹⁸. Epaimahaikoen arabera, berdintasun handia egon zen puntuazioen artean, eta sari gehiago egon balira, zerrenda luzeagoa izango

¹⁷ *Argia*, 1935-01-27, 2. or.

¹⁸ Diru sariak 100, 75, 50 eta 25 pezetakoak izan ziren, hurrenez hurren.

zela zioten. Ekitaldi nagusia bertsolarien agurrekin eta Aitzol eta Monzon jaunen berbaldiekin amaitu zen, baina bertsoen durundiak luzaro iraun zuen Donostiako Eusko Etxean¹⁹.

Txapela irabazi zuen Basarri bertsolaria, hurrengo urtean, 1936an, arautegiak hala aginduta, epaimahaian egon zen. Haren lekukoa, irabazle-txapela, Txirrita handiak hartuko du, hil aurretioxan hartu ere. Edozelan ere, Basarrik markaturiko ildo hor geratu zen. Juan Mari Lekuonak dioskunez: “Gutxik lagundu dute Basarrik adinbat bertsolaria, bertsoa eta bertsozalea bideratzen”²⁰. Oiartzuarrak lau puntutan laburbiltzen digu Basarriren ekarria: a) prestakuntza sendoa (eskolatua, musikan eta literaturan jantzia...); b) praktikotasun burutsua; c) gai bizi, ugari eta arretagarriak; eta, d) nolakotasun berriak bertsolaritza (saio laburrago eta zehatzagoak, musikaz aberatsagoak, kulturaz jantziagoak...).

Gaurko talaiatik begiratuta, harrigarri egiten zaigu ikustea, hurrengo urtean, 1936an, txapela irabaziko duen Txirrita bertsolaria, ordurako mito bat zena, lehenengo lau horien artean ez ikustea²¹. Era berean, azpimarratzeko modukoa da bertsolari bizkaitarren inguruan agertzen den aipamen-urritasuna. Izan ere, Joseba Zubimendik *Yakintza* aldizkarian eta *Bertsolari Guduak 1935-1936* liburuan jasotzen dituen 45 bertsoetatik bakarra da bizkaitar ber-

¹⁹ “Aitzol, Ernandorena eta besteren lana gutxietsi gabe, Zubimendi egon zen 1935 eta 1936ko Bertsolari Egunen antolamendu gaitz haien oinarrian. Horretarako derrigorrezkoa zen lan astunaz gainera, gure idazleak eman zien haize publizitarioa gero, bertsoak argitararaziz eta jardun haiei buruzko komentarioak eginez. Mende erdi luze bat joan da hil zenetik, eta orain altxor preziatu gisa irakurtzen ahal ditugu hartaz idatzi zituenak. Alor askotan izan zen Zubimendi aitzindari, eta bertsolaritza modernoaren lehen historiagilea ere, bera dugu.” (Izagirre, Koldo: *Bertso minez*, 16-17).

²⁰ Lekuona, Juan Mari: *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1971-1996)*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1998, 378. or.

²¹ “Txirrita rentzat saririk izan ez ba-zan ere, Eusko Abesbatzako batek *boxt* duroko bat eman zion bertsolariarik zarrena zalako” (*Argia*, 1935-01-27, 2. or.).

tsolariei dagokiena: puntua emanda Uriartek kantatutako bat, hain zuzen ere. Kontuan harturik 1936ko Txapelketa Nagusian ez zela Bizkaiko bertsolaririk aurkeztu²², ahalegindu egingo gara Abarrategi eta Uriarte bertsolariak ezagutarazten, gerra aurreko bertsolaritzaren lekuko historikoak baititugu.

2. Prudentzio Abarrategi Besamotza

Bagenekien, Uriartez gain, Poxpolin antzokian Bizkaiak bigarren ordezkari bat izan zuena, baina apenas ezer gehiago. Lehenengo Bertsolari Txapelketaren inguruko artikuluetan-eta, zehatz agertzen da partaide bakoitzaren herria; Prudentzio Abarrategiren kasuan, ordea, *Bizkaia* agertuko da sistematikoki. Noiz jaio zen eta noiz hil ere, ez da inon agertzen. Bertsolari Eguneko argazki bakanetan, bigarren ilaran agertzen da, Basarrik erdi tapatuta.

Aita Zavalak argitasun apur bat damaigu Uztapideren *Lengo egunak gogoan (I)* liburuan: “Abarrategi *Besamotza*, Urduliz, Bizkaia”²³. Halandaze, bat dira *Besamotza* bertsopaper saltzaile ezaguna²⁴ eta Abarrategi bertsolaria; badakigu jaioterria ere zein zuen gure protagonistak: Bizkaiko Urduliz herria.

Jaioterria zehaztuta, Bizkaiko Elizaren Artxibategi Historikora jorik, posible izan dugu Abarrategi bertsolariaren bataio-agiria lortzea: Prudencio Abarrategui Torrontegui, Urdulizko Santa Maria elizan 1873ko apirilaren 28an bataiatua. Gurasoak: Juan An-

²² “1936´garren urtean, Donostia´n ospatu zan Bertsolari Egunean beintzat Bizkaia´tik etzan iñortxo be an aurkeztu; emen ziran Dima´ko Uriarte, Mungia´ko Bartolo, Begoña´ko Betolaza, Getxo´ko Llona, Laukiniz´ko Eulia ta gaiñerakoak Kepa´gaz sari bertsotan ibilliak. Baiña etziran agertu, muxikararak eurak be ez eben adorerik izan gipuzkoarrakaz egun andi aretan indarrak neurtzeko.” (Aita Onaindia: *Gure bertsolariak*, Gráficas Bilbao, Bilbo, 1964, 315. or.).

²³ Olaizola, Manuel *Uztapide: Lengo egunak gogoan(I)*, Auspoa, Itxaropena, Zarautz, 2. ed., 1975, 157. or.

²⁴ Hona zer dioskun Joanito Dorronsorok: “*Besamotza*. Prudentzio Abarrategi. Seguraski, Euskalerrian inoiz izan den **bertso saltzailerik** ezagunena” (*Bertsotan 1789-1936*, GIE, Donostia, 1981, 228. or.).

tonio Abarrategui Elorduy eta Maria Manuela Torrontegui Aldecoa²⁵. Beraz, esan genezake Abarrategik Donostian Lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusian abestu zuenean 61 urte zituela. Beste datu askorik ez daukagunez²⁶, ezagutu zutenen testigantzetatik abiatuta hurbilduko gatzazkio Abarrategi *Besamotza*-ri.

Txapelketaren inguruko kroniketan, ez dago apenas harekiko aipamenik. Badakigu eskenatokian eskumako bigarren lerroan jarraitza egon zena, Errenteriako Telleritxiki bertsolariaren ondoan, eta laugarren saioan Aieteko Etxeberriarekin kantatu zuena. Azken saio horretako ofizioak zeintzuk izan ziren ere badakigu: Abarrategi, arotza; eta, Etxeberria, aizkolaria. Bertsorik baina, ez zaigu heldu. Orduko argazkietan ikusten denez, brusa ilunez jantzita joan zen saiora, idunean koadroan zapi bat zeramala.



Lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusia (1935-01-20)

1: Basarri, 2: Zepai, 3: Txirrita, 4: Txapel, 5: Saiburru, 6: Erauskin, 7: Mintegi, 8: Sarasola Lexo, 9: Nekezabal, 10: Telleritxiki, eta 11: Abarrategi.

²⁵ <http://internet.aheb-beha.org>

²⁶ "Txapelketa honetan aurkeztu zen Abarrategi ere. Honetaz dakigun bakarra bizkaitarra zela da. Uriarte eta Abarrategi izan ziren, ba, Txapelketa horretan parte hartu zuten bizkaitar bakarrak." (Muniategi, Abel: "Bertsolaritza Bizkaian", *Argia*, 600, 1974-09-01, 7. or.).

Abarrategi, beraz, bat-bateko bertsolaria zena ez dago darik. Edozelan ere, bertso-paper saltzaile modura egin zen ospetsu eta ezagun Euskal Herriko lekurik gehienetan, eta *Besamotza* ezizenez *-Manko(a)* ere agertzen da inoiz edo behin izendatzen zuten garaiko bertsozaleek. Hona hemen zer dioen Iñaki Egañak Abarrategi bertsolariaz, euskaldun aipagarrien bere zerrenda berezian:

“Abarrategi, Prudencio (s. XX. Bertsolari). Cantero, natural de Urduliz. En un aciago día, un cartucho de dinamita le arrancó ambas manos. Pero no fue el fin del mundo. Para sobrevivir, Prudencio comenzó a escribir poemas, versos, en papel, que recitaba y vendía por unas pesetas. Iba de pueblo en pueblo y de feria en feria ofreciendo sus composiciones. ¿Quién las transcribió cuando se quedó ciego?”²⁷.

Ezbeharra noiz gertatu zitzaion ez digu zehazten Egañak. Itsutu zeneko xehetasun hori, bestalde, ez da ostantzeko lekukotasunetan agertzen.

Uztapidek, bere aldetik, gorago aipaturiko liburuan, Prudentzio Abarrategiren deskribapen zehatza damaigu:

“Au beso-motza zan, da onek ere boza ederra zuan. Jeneralean, papel saltzen zebiltzanak, geienak eztarri onekoak izaten ziran; bestela ez baitu balio. (...) Besoak, biak motzak zituan bizkaitar onek; esku-muturretik moztuak. Jaten ez nuan beñe-
re ikusi; ez dakit nola manejatzen zan; baña dirua ederki kontatzen zuan. Brusaren patrikaran ibiltzen zituan sosak; esku-mutur batekin aterako zituan andikan; zabala zuan, ba, esku-muturra, ta gañean aterako zituan, da beste esku-muturrekin botako zituan zure eskura pezetaren ganbioak. Olaxe manejatzen zan ura”²⁸.

Uztapideren iritzian, gizon bikaina zen Abarrategi: metroa eta laurogei zentimetro luze eta ehun kilorako ez ei zuen asko

²⁷ Egaña, Iñaki: *Quién es quién en la Historia de los vascos*, Txalaparta, Tafalla, 2005, 13. or.

²⁸ *Lengo egunak gogoan (I)*, 53. or.

faltako. Brusa urdin luzea aldean, zoli abesten zituen saldu beharreko bertso-sortak: “Boza ederrarekin kantatu ere egingo zituan, da asko saltzen zituan”. Eskuetako elbarritasuna zergatik zeukan ez zekien Uztapidek, ez zelako inoiz hori itauntzen ausartu: “Galdetzeko etzan gauza egokia ere, ta ortan gelditu ginan”. Hurrengo lerrootan, Abarrategi non eta noiz ikusi zuen kontatzen digu Uztapidek:

“Gero, gerra-denporan, berriz, palta izan zan. Frantzia aldean-edo ibillia izan bear zuan. Nik ez nuan luzaro emen ikusi, ta an zebillela aditzen genduan²⁹. Gero Erreterin ikusi nuan, aztu ta geroko batean. Piska bat zartzera egiña zegoan ordurako. Urte asko ziran nik ikusi ez nuala, ta ez da arritzekoa neri zartua iruditzea, onera Oiartzunera etorri eta geroko kontuak dira-ta. Emen ez dakit senideren bat edo zer eukiko zuan Erreterin. Nik ala pentsatu nuan. Ura zarra da onezkero, bizi baldin bada. Ez det geroztik ikusi ta ez dakit zertan dan³⁰.”

“Oiartzunera etorri eta geroko kontuak dira” esan digu gorago Uztapidek. *Lengo egunak gogoan (II)* liburuan, Uztapidek zehaztu egiten digu zein garaitan izan zen hori: “Oiartzunera bizitzera etorri giñan ba. Nik berrogei ta bat urte eta anaiak ogei ta emeretzi, naikoa zarrak



*Prudentzio Abarrategi Besamotza,
1937-05-02an*

²⁹ *Lengo egunak gogoan (I)* liburuko 52. orrialdean, Jesus Elosegik Abarrategi Maulen eginiko argazki gogoangarri bat agertzen da: argalago dago Donostiaiko txapelketan baino, txapela eta brusa jantzita, irribarretsu... Argazkiaren data honakoa da: 1937ko maiatzaren 2a.

³⁰ *Ibidem.*: 54. or.

aldatzeko” (275. or.). Kontuan hartzen badugu Uztapide 1909. urtean jaio zela, 1950. urtetik aurrerakoak dira Uztapidek Abarrategiren gainean kontatutako azken xehetasunok. Bertsozale Elkartearen web orrian (www.bertsozale.com) ere, garaitsu hori aipatzen da: “Zestuan 1936 aurretik eta Erreterian 1952az geroztik ikusi zuen Uztapidek”.

Aita Zavalaren *Lexo bertsolaria* liburuan ere, badago Abarrategiren gaineko aipamen interesgarri bat, bertso saltzailearen bizimodua iruzkintzen duena³¹:

“Inprentatu ondoren [bertsopaperak] Besamotza´ri ematen zizkion saltzeko. *Besamotza* bertso-saltzalle bat zan; seguru asko, Euskalerrian inoiz izan dan bertso-saltzallerik ezagunena. Bizkai´ko Urduliz´en jaioa zan. Arrobi batean lan egiten zuan. Bañan, egun batez, desgaraiean lertu zan tiro batek bi eskuak kendu zizkion. Geroztik, bizi-modua nolabait ere ateratzearen, bertso-paper saltzeari ekin zion, erriz-erri Euskalerrri guzian barrena ibilliaz. Gerraz geroztik il zan, ta oraindik ere euskaldun asko dago aretzaz oroitzen dana. (...) [Lexok] Laguntzeagatik ematen omen zizkion. Besamotzak amarna xentimo saltzen zituan paperak. Noizean bein, biak alkarrekin saiatzen ziran bertso-paper saltzen, eliz-atarietan, plazetan eta ola-koetan, kantari asita”³².

Añamendi entziklopediak beste data interesgarri bat ematen digu urduliztarraren bizitzaren nondik norakoak zehaztu ahal izateko: “Ha sido el más famoso *bertso-saltzalle* (vendedor de composiciones) de todos los tiempos. Aún hoy se le recuerda mucho. Se le conocía con el nombre de *Besa-motza* (El manco). Compuso también alguna que otra composición que

³¹ Aita Zavalak Tolosan ezagutu zuen Abarrategi: “Seme kutun [izendatzen dituzue, era berean], Tolosako Zerkausian kantari jarduten ziran bertso-paper saltzailleak. Nik iru ezagutu nituan: Bizkaiko Prudentzio Abarrategi, *Besamotza*; Mendaro Txirristaka; eta Pello Saikola.” (Zavala, Antonio: *Auspoaren auspoa IV*, Auspoa-GFA, Donostia, 2006, 103-114. Tolosan, 2000ko urriaren 6an, “Seme Kuttun” izendatzean irakurritako hitzaldia).

³² Zavala, Antonio: *Lexo bertsolaria*, Auspoa, 79-80-81, Zarautz, 1968, 17. or.

imprimió y él mismo vendió. Hacia 1957 vendía cupones de lotería por las calles de Bilbao”³³.

Edozelan ere, badirudi, Auñamendi entziklopediak dakarren informazioak Aita Zavalak bere *Bosquejo de Historia del Bersolarismo* liburuan eskaintzen digun hurrengo testigantza honetan daukala oinarri; izan ere, Tolosako jesuitak bertatik bertara ikusi zuen Abarrategi Bilbon:

“El último gran *bertso-saltzalle* ha sido Prudencio Abarrategui, el popular *besamotza* que muchos recordarán todavía. Yo le vi hace unos cinco años en el Arenal de Bilbao, vendiendo cupones de lotería. Ignoro si todavía vive. Era vizcaíno. De joven trabajaba en una cantera. La explosión de un barreno le llevó las dos manos y se dedicó a la venta de *bertso-paperak* y algunas otras cosillas por los pueblos del País. El mismo compuso varios *bertso-paperas*. Por ejemplo, el que dedicó a Paulino Uzcudun en 1933”³⁴.

Aita Zavalaren liburua 1964an argitaratu bazen ere, berak esaten digunez, 1963ko maiatzean Donostiako EUTGn emani-ko hitzaldi batzuetan oinarritzen da argitalpena. Azken datu horiek kontuan hartzen baditugu, 84-85 urte inguru izango zituen orduan urduliztarrak.

Prudentzio Abarrategiren bertsogintza

Esanda daukagunez, ez zaigu Abarrategiren bat-bateko bertsorik heldu. Ez 1935eko txapelketakorik, ez ostantzekorik. Hala eta guztiz ere, gorago Aita Zavalak esan digunez, zenbait bertsopaper egin zituen urduliztarrak. Beraz, inoren bertsopaperak ez eze, berak paratutakoak ere saltzen zituen Abarrategi *Besamotza*-k.

³³ www.euskomedia.org/auñamendi/5875

³⁴ Zavala, Antonio: *Bosquejo de Historia de Bersolarismo*, Auñamendi, Donostia, 1964, 60. or.

*Bertsolariya*³⁵ aldizkarira jotzen badugu, urduliztarraren bertso-sorta bi aurkituko ditugu: “Oraingo neskatxari” (Abarrategi k jarriyak)³⁶ eta “Neskatxa ederra nago ta...” (Abarrategi k jarriyak)³⁷. *Bertsolariya* aldizkariekin egin zen bilduma-liburuaren aurkibidean hirugarren sorta bat agertzen da Abarrategi sinadurarekin (“Praixku artzaya abeslari”), baina aipatutako bietan ez bezala, ez da *Manco* ezizena agertzen; bai, ostera, *Soraluze tik* ailea.

Bazegoen, beraz, beste Abarrategitar bat bertso-sortak idazten zituena. Izan ere, gerra aurreko urteetan, *Euzkadi* (1918-1919) eta *El Día* (1930-1936) egunkarietan Soraluzetik Abarrategitar batek bidalitako kronikatxoak eta bertsoak agertzen dira³⁸. Datu gehiago izan artean, aztertzeke itxiko dugu kontua. Edozelan be, esan genezake kutsu garbizalea goa eta kultuagoa daukatela Soraluzetik bidalitako bertsoek-eta, Prudentzio Abarrategiren bertso jarriek baino.

Bertsolariya aldizkariko bertso paper bietan neskatxak dira protagonista, eta gaia tratatzean nahiko ikuspuntu klasikoa darabil Abarrategik. Gipuzkeraz daude idatzita, oso hizkuntza herrikoian. Lehenengo sortak 15 kopla (7-/6a/10-/6a) ditu; bigarren sortan, aldiz, bederatziz puntuko 12 bertso darabiltza, eta zehatzago idatzita daude. Kasu bietan, amaieretan erosle posibleari zuzentzen zaio,

³⁵ Hona zer dioskun Aita Zavalak aldizkari horretaz: “El *Bertsolariya* se propagó mucho por todo el País. No es raro encontrarlo aun hoy en caserios, habiendo sido cuidadosamente guardado semana tras semana, hasta lograr formar, al cabo del año, el tomo apetecido. No creo exagerar si digo que el *Bertsolariya* constituye una de las cinco o seis principales obras euskéricas publicadas en lo que va de siglo” (Ibidem, 189. or.).

³⁶ Abarrategi, Manco: *Bertsolariya*, Wilsen Ed., Bilbo, 1987, 3. ed., 206-207. (*Bertsolariya*, 23, 1932-02-21, 6. or.). Ikusi, era berean, Aita Onaindiaren *Bertso berri eta kanta zar (I)*, 1957, 59-61.

³⁷ Ibidem, 146. or. (*Bertsolariya*, 33, 1932-05-01, 4-5).

³⁸ Ikusi: J. Urkizaren “Bertso eta olerkien hemeroteka” eta “Euskal prentsaren lanak” (www.armiarma.com).

erosteko gonbitea luzaturik: lehenengoan: “zar ta gaztiak ikasitzeko / paper bana artu”; eta , bigarrenean: “emen saltzeko daude / gusto dubenentzat”.

Prudentzio Abarrategiren hiru bertsopaper

Abarrategiren inguruko dokumentazio lana egiten ari ginela, urduliztarraren hiru bertsopaperekin egin genuen topo. Hirurak Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegian daude. Lehenengoak “Bertzo Berriak. Gora Paulino Uzkudun, Aupa”³⁹ du izenburu. *Abarrategi* du sinadura, eta lehenengo bertsoan irakur daitekeenez, 1927koa da. Uzkudun boxeolariak, “Europa dana menderatuta”, Ameriketara egindako egotaldia, borrokak-eta kontatzen ditu. Hamabi zortziko nagusi dira guztira, gipuzkeraz idatziak. Bilboko Etxenagusiarenean argitaratu zen bertsopapera.

Bigarrenak “Bertso Berriak ¡Gora Paulino Uzkudun! Aupa”⁴⁰ du izenburu, eta 1928an dago datatuta: “Beasañen L. Zunzunegi´ren etxean 1928-an”. Bertsopaperak, atzealdean, argazki handi bat dauka, eta bertan “Paulino ta bere ama” agertzen dira. Sinatu, *Abarrategi´tar Prudensio´k* egiten du. Hamabost zortziko nagusi dira, gipuzkeraz idatziak. Gaia, Uzkudun boxeolariak, Ameriketara urtebete ´erdi egin eta gero, Euskal Herrira egin zuen bueltako bidaiak da: Ameriketara, Avre, Paris,

³⁹ Fitxa teknikoa: Egilea: Abarrategi, Prudensio. Izenburua: “Bertzo berriak. Gora Paulino Uzkudun, Aupa” / Abarrategi. Notak: 1 o.; 32 cm; bertsopaperak; hasten da: “Emeretzireun urte pasata / ogei-ta zaspigarrena”; Gregorio Mujikaren liburutegitik etorritako alea. Editorea: Bilbo´n: Etxenagusia´ren Irarkolea, [19--?].

⁴⁰ Fitxa teknikoa: Egilea: Abarrategi, Prudensio. Izenburua: “Bertso berriak. ¡Gora Paulino Uzkudun!, Aupa” / Abarrategi´tar Prudensio´k. Notak: [2] or. argk.; 32 cm; bertsopaperak; hasten da: “Millas gañera beatzireunda / oita sortziko urtian”; Gregorio Mujikaren liburutegitik etorritako alea. Editorea: Beasañen: L. Zunzunegi´ren etxean, 1928.

Hendaia, Donostia, Errezil... Aurreko bertsopaperaren osagarri eta jarraipena genuke⁴¹.

Hirugarren bertsopaperak “Bertso Berriyak”⁴² du izenburu eta ez dakar datarik. Edozelan be, ohitura zenez, lehenengo bertsoan agertzen da data hori: “Milla ta bederatzireun da / Ogei ta zortzi urte / Jesus jayotzanetik / Onera bitarte”. Gaia aizkora/korrika apustu bat da, urte horretako abenduaren hamaseian, Azpeitian, Keixeta helduaren eta Yarza gaztearen artean jokatu zena. Hamabi hamarreko txiki dira, eta Abarrategik enkarguz egin zituela dio: “Bertzuak ipintzeko / Enkargatu naute / Aizkol joko eder bat / Dala mediante”. Sinadura, kasuon, *Abarrategi* da eta Erreterian dago inprimatuta. Bertsook ere, gipuzkeraz idatzita daude.

Gaiei dagokienez, daukagun *corpus* txikia kontuan harturik, ikusten dena da, Abarrategik gai zabal eta orduko jendearen gustukoak erabiltzen zituela: neskatzak (janzkera, ezkontza-kontuak...), boxeo, herri kirolak... Edozelan ere, deigarria da hark erabilitako euskara, bertso-jartzaileak gipuzkera erabiltzen baitu aipatutako bost bertsopaperetan. Dakigunez, mendebaldeko bertsolarien artean tradizio zabala egon da gipuzkera erabiltzeko bertsoetan. Gipuzkoar kutsuko bizkaiera sarri jalgi da mendebaldeko bertsolarien ahotik eta lumatik. Hala eta guztiz ere, Abarrategiren bertsopaperen kasuan erabatekoa da gipuzkeraren nagusitasuna. Horixe da deigarriena haren bertso-sortetan.

⁴¹ Gorago ikusi dugunez, Aita Zavalak Abarrategik Uzkuduni, 1933an, dedikaturiko beste bertsopaper bat aipatzen du.

⁴² Fitxa teknikoa: Egilea: Abarrategi, Prudensio. Izenburua: “Bertso berriyak. / Abarrategi. Notak: 1 o.; 31 cm; bertso-paperak; hasten da: “Milla ta beatzi-reun da / ogei ta zortzi urte”; Gregorio Mujikaren liburutegitik etorritako alea. Editorea: Renteria: Imp. Económica, [19--?].

Jakin dakigu herriz herri ibiltzen zena, eta Euskal Herri osoan ezaguna zena. Baina itxarrotekoa zen bizkaieraren ukitua edo nolabaiteko kutsua agertzea haren euskaran. Hori dela-eta, itaun batzuk datozkigu burura: Salmentari begira eginiko aukera zen? Bertsopaperak berak beratara egiten zituen gipuzkera horretan? Edo, bateren batek laguntzen zion bertsoak gipuzkeratzen?...

Aita Zavalak bere *Patxi Erauskin bertsolaria I* liburuan, bertsolariaren seme Ramonek kontatutako pasartetxo hauxe dakar: “Mesede egitearren, [bertsopaperak] *Besamotza* bertso-saltzalleari ere ematen omen zizkion, baiñan bere izenik gabe eta arenean-edo argitaratzeko eman ere”⁴³. Izan ere, badago nolabaiteko paralelismoa Erauskin eta Abarrategiren artean: bitzuek hiruna bertso-paper opetsi zizkioten P. Uzkuduni; eta, izenburuei bagazozkie, bitxia da ikustea Erauskinen sorta batek eta Abarrategiren sorta bik ia-ia titulu bera daukatela⁴⁴. Lankidetzaren bat egongo zen bien artean? Urduliztarraren bertso(paper) edota argibide berriak agertuz gero, agian, posible litzateke galderok erantzutea.

⁴³ Zavala, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria I*, Auspoa, Tolosa, 1978, 69. or.

⁴⁴ Erauskinena (1927): “Bertso Berriak. Gora Paulino Uzkudun! Gora!” (*Patxi Erauskin bertsolaria III*, 19-24); Abarrategirenak lan honetan ikus ditzake irakurleak.

BERTZO BERRIAK

GORA PAULINO UZKUDUN, AUPA

1

Emeretzireun urte pasata ogei-ta zaspigarrena, bertzo batzuek jarri artean ez neukan lasai barrena; pasadizoa esan bear det Paulino Uzkudun'ena, au izango da Ukabilkari munduan donik onena.

2

Europa dana menderatuta joan zan Ameriketara, ayetan ere askaf sartu du bildufa edo ikara; garbi jokutzen baldin badira gizon jatofan antzera, andikan ere ekafiko du txapela edo bandera.

3

Amerika'ra joan da laistef Habana ortako plazara, Kalifornia'ko nagusi ori pizka bat probatutzera; lendabiziko eskerkasoan luzatu zuan lufera, apenaz zeukan gogo aundirik befiz etortzeko aufera.

4


Urtean lendabiziko afatza egiña zuten berezi, amafetatik amafiketara tarte ortan ziran asi; milaka askok egiñ-azuten nola botasun ikusi, giza gaixua etzan asafe joan zanean igasi.

5

Gerotzik ere beste sei mutil egiñak ditu probatu, zuriak bezin askar egin du beltsa ere menderatu; Delaney'kiñ traba pizka bat egin diote paratu, bañan befiz-e mutil ofekin egin nai luke jokatu.

6

Atibilz ofek fama aundi zuan ukabilkako lanean, bildur gogofa sartua zeukan Ameriketa danean; dotore samar jafi omen zan Uzkudun orten artean, lafu beltz ori gofitutzeko etzegan leku txafean.



7

Beltz andi ofek pentzatzen zuan bera añekorik etzala, bañan Paulino'k aguro samar mudatu zion azala; mutil abil bat balitz bezela egiten zuan itzala, laugafenean jota aidian saku ikatza bezela.

8

Bein ere ez da lotan egoten Deabru edo etsaya, arbitro ere oyen legera nunbait egiten da saya; Uzkudun ofi zer pasa zayon artu nunean uzaya, nere bafena momento artan etzegan oso lasaya.

9

Aizkenerako Delaney-kin ernegatu du naikua, arbitro ori malesietan es dago oso flakoa; ustez ederki jafia zeukan afapatzeko zepoa, besteak lotan egon bali-ara betekoe zuan sakua.

10

Arbitro ofek zer egin duan bear det adierazi, Paulino Uzkudun kulparik gabe, plazan eferira azi; bañan beretzat kastigu edefa egiña du irabazi, kristau gatzeak gauza onikan beñ ere ez du merezi.

11

Etxil'ean jayo-ta asia au da seme erosa, onek emateun zartadakoa ez da izango gozoa, berak bakafik bildurtua du kasikan mundu osoa, ¿zer dala usteute Euskal-efiko mendi mutilen besoa?

12

Agur, Paulino, beste bat arte au izango da azkena, bertso batzuek kantatutzean lasaituzten zait bafena; Euzkaldunaren ondrafafi da zerofek ein dezun lana, piska batean deskantsatzera etor zaitze ama gana.

BERTSO BERRIAK

IGORA PAULINO UZKUDUNI AUPA

1

Millas gañera bezaitzeunda
oita sortziko urtián,
bertzo befiak jartzera nua
gustisko borondatían;
Paulino Uzkudun etofi saigu
osasunas ta pakíán,
kontrariuan bildúfik es da
ori sano dan artíán.

2

Urte beteta erdinguruan
Ameriketan bisia,
dirua pranko ekafiadu
andikan ira basia;
durarik gabe emáña dauka
jauserukuak gráña,
ofengatikán orain eténdu
susko kotxian páña.

3

Amerikatik urán gañián
sортz bat egun pásatu,
jakíña dago birián ere
egin gosala aspétu;
dudarik gabe gorputzetikan
gañera beris nekátu,
Avre ofetan eldósánián
oso seguan kontéfitu.

4

Itxasotik en eténsánián
Paulino Uukuddu lufera,
jendia pranko etofisayon
eskua estututuzera;
gero lagunak bilduak síán
bankete ederbat jatéra,
gosesiranda gausa onelik
sabela berdin dutzéra.

5

Paris aldera mobitu ziran
gero trenian sartuta,
an ere atrasu pixkabat basan
ardatzak sua artuta;
berandu samar irixia san
gausa ori gertatuta
bañan ala ere kontentu siran
desgrasirikan etzanta.

Abarategi'taf Prudensio'k

6

Sartu eginsan Parisera-ta
an ere basan jendia,
kale gustiak beferik seuden
esin egin san bidia;
txandarme eta guardiak gero
atera suten idea,
saldi gañian jafi siranta
libratu zuten aurria.

7

Paulinon billa bere lagunak
Pariseraño juañ dia,
dudarik gabe lenagotikan
jakingo zuten bidia;
Jazinto Uzkudun bere anaya bat
Gofii medikua bestia,
irugafena Justo Oyarzabal
kojuenekoa nusia.

8

Paris aldera sartu sanian
basan jendia begira,
biba ta gora txaluak juas
Paulinon aldamera;
bere adixkire on batzuekin
juan san hotel batera,
andik irten da ufená beñis
Zarasketan armerira.

9

Jórfállaren amabosteán
etofi zan Donostira,
Endayatikan parte safera
jendea bazan begira;
kale Mirakruz'en bakar-bakafik
ogel millatikan gorá,
guztiak beñis etofi nayan
eskua estututuzera.

10

Kojuenean sartu zanean
askar igo san balkoia,
jendé denari ongi otofia
borondatez egitera;
musika eta soñua beñis
alegrantzia ondora,
maitagafia izanduada
Paulinoren etofera.

11

Kojuenean baskaldu-eta
ateraziran osterá,
bere lagunak bizitatzera
Tolosa'ko eri ortara;
adiskideak etofi ziran
eskua estutuzera,
gero andikan Efesil-era
bere ama ikustera.

12

Eñian ere jendea bazan
Uzkudun-en inguruan,
piska batean eukikodet
egun ori nik qogoan;
kotxeaketa automobilak
bere etxean ondoan,
ta aizkenean ama maittea
efetratatzen besoan.

13

Ofen moduko mutilla ez da
billatzen atean-atean,
geyena samafak sanpatu ditu
Paulinok orain artean;
danak bildufez jafitzendira
au akabika astean,
beñis txafago ezda izango
deskantzatuta joatean.

14

Paulino Uzkudun beti izanda
bizkoka eta fuertea,
mutur jokuan ikasitzea
ez da ofentzat kaltea;
gañera beñis Ameriketan
isugafizko suertea,
amata af bak artu lezake
lasari txokolatea.

15

Gaztetatikan izanda ori
langillea ta leyala,
ikaskintzera mendira joan tzan
ezkola utzita beriala;
burnia bezin gogofak dira
ofen aragi ta azala,
nik opadiot urte askoan
ondo konserba dezala.

Beasañ-en L. Zununegi'ren etxean 1928-an

Bertso Berriyak

1

Milla ta beatzireun da
Ogei ta zortzi urte
Jesus jayotzanotik
Onoia bitarto
Bertzua ipintzoko
Enkargatu naute
Aizkol joko eder bat
Dala mediante
Koisheta oiaindikan
Dago baliente.

2

Abonduan amaseyian
Azpeitiko plazan
Oyek ikusitzera
Jende asko sartuzan.
Alde bietatikan
Animua bazan
Keiseta aurrian
Yarza gortuzan
Aizkorako lanian
Dipentzi gutxi zan.

3

Keiseta zarra ta
Yarza gaztia
Biyak ero langillo
Motelak ez tia
Gogor sayatu ziran
Bata ta bestia.
Etzuten lenbiziko
Aizkoran astia
Gustagarri zan oyen
Egurra moztia.

4

Zortzi tronko moztu ta
Laisterkako lana
Gizon biartuantzat
Ori ez da ona
Irurogei ta amar buelta
Sinalatu zana
Marka ortara lenbizi
Allegatzen dana
Arrek altxatutzeko
Jokauta zegona.

5

Keiseta lenbizi
Egin zan saltatu
Bi buelta ta erdi justu
Bentaja ero artu
Gaztia gero eginzan
Ondoren abitu
Eginalak egin ta
Eziti arrapatu
Amaseigarren bueltan
Zan erretiratu.

6

Keisetak bakarrik
Segi ziyon bertan
Laisterka egiten du
Napar zarren plantan
Jolasian zebillen
Kontrario faltan
Etzizuan goshua
Bukaera artan
Erbi arrapako zuan
Azkenengo bueltan.

7

Esku bat elbarri ta
Berrogei ta zappi urte
Ala ere lanari
Segitzeyo fuerte.
Orren kontrariuak
Ez dira aparte
Batzuek ez daude lasai
Menderatu arte
Edade berdinian
Kostako zayote.

8

Jose Aramburu da
Urrestillakua
Amaika joku eder
Irabazi kua
Jeniyoz biziya ta
Gorputzez bapua
Apropos artarako
Munduan sortua
Nun te da beste bat
Orren modukua.

9

Berrogei ta amalau minuto
Ta ogei segundu
Lan dana eginduala
Jendiak esandu
Aizkoran da laisterka
Ederki egiten du
Pixka bat zartuarren
Ezda oso auldu
Edade berdinakin
Zenek naidu ondu

10

Ategorrietan nuan
Bein batez ikusi
Eskua lotu eta
Benda eta guzi
Atzaparrak zituan
Moztu edo ausi
Ala ere jokua
Eindu irabazi
Diario bat orrek
Ezaldu merezi?

11

Joku asko jokatu ta
Irabazi geyenak
Oyek egiten ditu
Artarako danak
Beti bukatu ditu
Plazetako lanak
Famak merezi ditu
Portatuzten danak
Gora Keiseta ta
Bere lagun onak.

12

Amabi bertsoekin
Egiten det bukatu
Zigaro naizelako
Kantuan nekatu
Arrazoyak egin ditut
Nere ustez negurtu
Gaizki esanik bada
Meserez barkatu
Gusto duen guztiak
Paper bana artu.

ABARRATEGI

3. Esteban Uriarte *Utarre*

Arratiako bertsolaritzaren historian aparteko leku bat daukan bertsolari hau Dima herriko Bikarregi auzoko Iturbe base-
rrian jaio zen 1894an. Hogeita bost urte zituela Isabel Genero-
sa Ortizegaz ezkondu, eta bost seme-alaba izan zituzten. Seme
nagusia, Jose, Arratiako bertako Igorre herrian jaio zen, baina
handik denbora laburrera Bermeora aldatu zirenez, garaite-
koak (Miren, Julen, Lourdes eta Elisabete) kostaldeko herri ho-
rretan jaio ziren: “Gazterik joan zen Mañura ikazkin eta harez
gero, Bermeon emango zuen bere bizialdia hargin eta udaleko
enplegatu bezala”⁴⁵. Kartzela frankistetan osasuna galdua, bere
lanbideak, hargintzak, eragindako gaixotasun batek jota, Ber-
meon bertan hil zen, 1947. urtean⁴⁶.

Esteban Uriarte gaztetxotan hasi zen bertsotan, eta gaztea
zela hasi zen idazten, 1920an Kirikiñori Dimatik bidalitako
bertso-sortan ikus daitekeenez⁴⁷. Hogeita sei bat urte dauz-
kan bertsolari-idazle gaztea euskaltzale eta abertzale sutsu
dagerkigu bertsootan; eta, baserritarra den aldetik, lugin-ne-
kazaleenganako elkartasuna beren-beregi azpimarratuko du.
Era berean, orduko idazleen taiua eta garbizaletasun ukitua

⁴⁵ Muniategi, Abel: “Bertsolaritza Bizkaian”, *Jakin*, 14/15, 1980 apirila-iraila, 17-29.

⁴⁶ Esteban Uriarteren bizitzaren nondik norako nagusiak ikusteko, eskertze-
koak dira Iñaki Esparza irakasleak Arratiako *Begitu* aldizkarian argitaraturiko
artikulu bikainok: “Arratiako bertsolaritza azken mendeetan II: Esteban Uriar-
te”, *Begitu*, 18, 2003, 6-7; eta “Arratiako bertsolaritza azken mendeetan III: Es-
teban Uriarte”, *Begitu*, 20, 2003, 16-17. Era berean, ikusi: “Uriarte Etxebarria,
Esteban”, in Esparza, Iñaki & Larrea, Angel : *Arratiako euskal idazle aitzin-
dariak (in memoriam)*, Arratiako Udalak - BBK, Oñati, 2004, 283-287; eta
Iruarrizaga Barragan, Rakel: “Esteban Uriarte Etxebarria *Utarre*”, in Askoren
arteak: *Arratiako idazle aitzindarien antologia*, Artea, 2005, 529-538. Liburu
biok aportazio benetan interesgarriak dira Arratiako *Parnaso* aberatsa ezagu-
tu ahal izateko.

⁴⁷ “Ixidoro Deunez Bermeo´n”, *Euzkadi*, 1920-05-28, 6. or.

(*izparringia, txadona...*) bereganatuta dauzka “Arratiako txori txikiak”⁴⁸:

Kirikiño, zuk nitzat ba-dozu
Lekurik izparringian,
Luginatzaz gaur aurkituten naiz
Zegozer esan gurian.
Bermeon nintzan sarritan legez
Ixidor Deun egunian,
Ainbeste lugin ikus nebazan
Eupeme Deun txadonian.

Berez, zorrotza eta zirikatzailea zen arren, Uriartek bazekien bere sentimentuak-eta bertsoen bitartez adierazten, samur eta sakon adierazi ere. 1928an anaia hil zitzaionean, samin eta atsekabez beterik, lau bertso eskaini zizkion, bere fede irmoa ere agirian jarritz:

Ogei eta bost urtekoa zan
zeure ludiko bizitza,
Jaunak ez eban geiago gura,
emon dautzu eriotza.
Emeko amak zeuri negarrez
zatitu badau biotza,
betiko Ama or goian dago,
Josu´ren Ama Neskutza.⁴⁹

Haren euskaltzaletasun sutsuaren adierazgarri da 1930eko martxoaren 18an *Euzkadi*-n argitaraturiko “Ibarrangelua” artikulutxo. Laburra da oso: prosazko sarrera eta ahapaldi bakar bat. Sarreratxoan Ibarrangelun zergatik dagoen esan ondoren

⁴⁸ Esteban Uriarteren inguruan hiru ezizen agertzen dira: sorta honetako bosgarren ahapaldian berak aitaturiko “Arratiako txori txikia”, “Bermeoko urre-txindorra”, eta, berak ia sistematikoki erabilitako “Utarre” (Uriarte **tar** Esteban).

⁴⁹ *Euzkadi*, 1928, 4831. zb., 5. or. Ikus, era berean: *Arratiako euskal idazle aitzindariak*, 285. or.

(“arri landuzko illobiak egiten”) bertako jendeak euskararekiko zuen atxikimendua azpimarratzen du *Utarre*-k: jende atsegina hangoa, hizkuntza mamitsua darabilena, eta euskaraz barra-barrara egiten duena; bertako zenbait gizasemek, “gizon kapeladunak izan arren”, euskara dute ahoan, naturaltasun osoz... Hona hemen, Ibarrangelu herriari opetsi zion hamarreko nagusia:

Zugatz igali mendian eta
bedar garbia soluan,
biotza sutsu, mingaña garbi,
ekandu zarrak goguan,
euskeldunaren jatorria-ta
beti erdera agoan.
Au emen ez dot ikusten eta
ze atsegiñez nagoan:
neure biziya emongo neunke
pozik Ibarrangeluan.

Gerran sartuta, abertzaletasun kutsua areagotu egingo da dimoztarraren bertso-sortetan. Dakigunez, hiru bertso-sorta argitaratu zituen gerran bertan jaio zen *Eguna* egunkarian⁵⁰. Hirugarren sorta da, hain zuzen be, Joseba Tapiak bere “Agur Intxorta Maite”⁵¹ CDko “Laban daukagun opille” abestia⁵² egiteko erabili zuena. Esteban Uriarteren abertzaletasun horren erakus-

⁵⁰ [“Biotz andiko kistar betia”], *Eguna*, 1937-01-04, 4. or.; “Neure adiskide *Basarri*-ri”, *Eguna*, 1937-01-28, 2. or.; eta [“Lo zorro baten nenguan baña”], *Eguna*, 1937-02-04, 4. or. Estebanek pozarren hartu zuen euskara hutsean argitaraturiko egunkari honen agerpena: “Agur bero bat neure barrutik / eguneroko EGUNA. / Zeure bitartez lortu geñeke [geinke] / Euzkalerriko zoruna” (*Eguna*, 1937-02-04).

⁵¹ Tapia, Joseba: *Agur Intxorta maite. 1936-37ko gudako kantuak*, CDa, Gaztelupeko Hotsak, Soraluze, 2001.

⁵² Esteban Uriarteren bertso-sortak zazpi bertso dituen arren, Joseba Tapiak 3, 4, 5, eta 7. ahapaldiak baino ez zituen musikatu. Musikariak bertsoak norenak ziren jakin barik aukeratu zuen Uriarteren sorta; izan ere, abestiaren letraren ondoan honako testutxo hau dakar kanta-liburuxkak: “Utarre, garai-ko ezizenen arabera, U’tar E. izanen zen. Ezin izan dugu jakin nor den”.

garri sorta horretako azken bertsoa dakargu lerrootara. Azken bertsoaren azken lerroak damaio izenburua Tapiaren abestiarri⁵³, eta, dakigunez, sorta berau dugu *Utarre*-k argitaratutako azkena :

Gora euskotar abertzaliak,
 gudari ta euzko-langille;
 iñor ez dua geu ez bagera
 gutzat gauzonaren bille.
 Begiak argi, adiña garbi,
 min gaiña ixil ixille,
 garaian gagoz erakusteko
 zein dan eiztari abille.
 Zutik guztiok iñok jan barik
 laban daukagun opille.

Gerran, Esteban harginak, gehienbat, aterpeak-eta egiten jardun zuen, harik eta nazionalak Bilbon sartu ziran arte. Orduan, Bilbotik Santoña aldera egin zuen Euzko Gudarostearekin. Hango itunaren ostean preso hartu zuten, eta El Dueson (Santoña), Bilboko Larrinagan eta Burgosko presondegian eza-gutu zuen arrazoirik bako gartzelaldien samina. Dimoztarrak larrutik ordaindu behar izan zuen bere abertzaletasuna, 1943. urtera arte egon zen-eta giltzapean. Handik hiru urtera, 1947an isildu zen Bermeoko Urretxindorra, 53 urte zituela.

Esteban Uriarteren bat-bateko bertsogintza

Bertso-sorta ugari (*Euzkadi, Eguna...*) eta zenbait bertsopa-per argitaratu zituen arren, *Utarre*-ren bat-bateko bertsogintza-ren lekukotasun gutxi daukagu. X. Amuzirak dioskunez: “Uriarteren bat-bateko bertsogintzatik, emoitza urria geratu jaku. Kepa Enbeita Urretxindorragaz askotan ibiltzen zela dinoe

⁵³ Rakel Iruarrizagak dioskunez: “Kanta berau Eneko Olasagastik zuzendutako *Metxa* antzezlanean ere abesten da, Antzezlan hau 23 eszenaz osatua dago eta Uriarteren bertsoak 14. [12.] eszenan agertzen dira” (op. ct., 533. or.).

sasoiko lekukotzek, baina haren bat-bateko bertso-rik, guk da-
kigula, bat edo bi besterik ez jaku heldu”⁵⁴. Hurrengo lerroetan
ahalegintzoa egingo dugu bertsolaria bere testuinguru koka-
tzen eta, ahal den neurrian, haren bertso-ibilibidea zehazten.

Lehenengo lekukotza Basilio Pujana (1913-2005) Zeanuriko
bertsolariak damaigu: “Nik lenengoz entzun neutsien bertso-
lariek izan ziren Esteban Uriarte Dimakoa semez, ezkondu eta
gero Bermeon bizi zana, eta Kepa Enbeita, Zeanuriko plazan,
agostuko Andra Mari jaietan 1927an edo holan uste dot”⁵⁵.
Urretxindor biek –Muxikakoak eta Bermeokoak–⁵⁶ eginiko
saioa gogoangarria izan zen Pujanarentzat, eta beren-beregi
goraipatzen du *Utarre*: “Uriarte bera bertsolari ona zan”. Gero-
ra, kanta lagun ere izan zuen Pujanak Uriarte, behin baino
gehiagotan: “1935ean Dimako Uriarte eta Basarri izan zituen
lagun [Pujanak], Zeanuriko sei abadek meza berria eman zute-
nean”, diosku Igor Estankona Arratiako poeta gazteak⁵⁷.

Handik urte bira, txapelketa baten hartuko du parte Uriar-
tek, 1929an, hain zuzen ere. Kasuon, lekukotasuna 1906an jai-
o zen B. Enbeitak ematen digu: “Hogeita hiru urte nebazala,
Mungian txapelketa bat eratu eben. Sei bertsolari batu ginan:

⁵⁴ Xabier Amurizak zera ere gehitzen du *Bizkaiko bertso-
gintza III. Gerra
aurreko emoitza* liburuan, 1935eko txapelketako bertsoa aipatu eta gero:
“Uriarteren beste bat-bateko bertso bat be gordetzen da, berea dela guztiz zi-
urra ez da baina. Behin, tabernan, ordaintzeko modurik ez edo gogorik ez
zeukan mutilzahar bati honako hauxe kantatu ei eutsan: Mutilzaharren bizit-
za / beti doa penaz / bentaja gitxi dauko / etxetik urtenaz. / Nik diru gitxi
eta / hik bapez apenas / neuk gonbidatuko haut / poltsan daukotenez” (*Biz-
kaiko Bertso-
gintza III*, 183. or.).

⁵⁵ *Begitu*, 18, 2003, 6. or.

⁵⁶ Kepa Enbeita *Urretxindorra*-rekin sarri ere sarri abestu ohi zuen Uriartek:
“Bainan Kepagaz gehien kantatu ebana 1931-tik 1936-ra bitartean Uriarte
izan zen” (Muniategi, Abel: *Bertso-
gintza Bizkaian: (koplatik bertso-
ra)*, Real
Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Bilbo, 1995, 25. or.).

⁵⁷ Estankona, Igor: *Basilio Pujana*, Bidegileak, 47, Eusko Jaurilaritza, Gasteiz,
2007, 6. or.

Uriarte, Bartolo, Zarraga, Kastrejana, Ormaetxe eta ni. Ni neu geratu nintzan txapeldun eta Uriarte bigarren”⁵⁸.

Axe-Busturiako batzokia zabaldu zenean ere, hantxe egon zen Utarre. *Euzkadi* egunkariak zioenez, bertso ederrak eskaini zizkien Esteban Uriartek bertara baturiko *bizkaitarrei*:

Gexo gogor bat anai artian
Euzkel-Erriak daukena!
Alkar dabilnaz asarraturik
Maite ixan biar litxenak.
Batzuk apurtu gura-daudie
Sabin´ek esan eutsena:
Aberrijonen goi-buru zala
Jaungoikoa´ren ixena⁵⁹.

Faustino Etxebarria dimoztar bertsolariak ere, jakingarri batzuk ez eze, *Utarre*-ren bat-bateko bertso batzuk ere opesten dizkigu. Izan ere, 1932. urtearen bueltan, hamabost bat urte zituela –1917an jaio zen–, Faustino gatzetxoak, Dimako Santa Ageda ermitara egun pasa joanda, aukera izan zuen Uriarterekin saiotoxo bat egiteko: “Aguazilak pregoia jo eban tanborre-ruagaz: *Arratsaldeko lauretan egongo dira bertsolariak, Esteban Uriarte eta Faustino Etxebarria, biak erri onetako semeak. Bata zarra eta bestea gaztea, Esteban orain Bermeon bizi da-*

⁵⁸ Enbeita, Balendin: *Bizitzaren joanean*, Elkar, Donostia, 1986, 63. or. Balendinek zera ere gehitzen du: “Herrietako jaietatik aparte, hauteskunde garaian, ez nintzan gelditu ere egiten. Behin, egun berean, sei mitinetan parte hartu beharra izan neban. Aita, Uriarte eta ni izaten ginan gehienetan bertsolari, eta Agirre, Lauaxeta... etab. hizlari”.

⁵⁹ Ekitaldiaren berri ematen zuen kazetariak zera zioen: “En primer lugar, Uriarte tar Estepan, el urretxindor de Bermeo, nos obsequió con magníficos cantos a nuestra patria Euzkadi; a vuela pluma pudimos recoger, aunque con ciertas deficiencias, la siguiente estrofa que le valió el más cerrado aplauso de la selecta concurrencia” (*Euzkadi*, 1932-01-09, 4. or.). Berez, bederatzi puntu solte dira, eta litekeena da bertso bakar bat osatzea. Hona, 1, 2, 8 eta 9. puntuak baino ez ditugu aldatu.

*na eta Faustino Indusiko mutikoa*⁶⁰. Hona hemen, Uriarteren lehenengo bertsoa:

Gazte estimatzen dot
zure etorrera,
biok erri bateko
ta biok batera.
Poztu egin nazela
noia esatera,
ta nik dodan indarra
zuri emotera.

Uriarteren beste bertso bat ere gogoratzen du Faustino Etxebarriak. Esan liteke saio horretan Uriartek pozarren ikusi zuela Dima herrian bertsolaritzaren katea ez zela eten, Faustino gazteak eroan zezakeela jarraipenaren lekukoa Arratian:

Mutiko zara ta poztuten naz
orain zu ikustian,
ni zarra naz ta ordeazkoa
neure errian ixtian.
Emoten dautsut neure eskua
biotza bete-betian:
erria ondo zaindu egizu
beste bat jaio artian.

1935-36 urteetan, gerra piztu artean, hamaikatxo agerralditan hartu izan zuen parte Uriartek, sarritan orduko bertsolaririk ospetsuenak kanta lagun zituela. Aipagarria da 1936ko ekainaren 28an, Lekeition, VII. Olerti Egunaren⁶¹ inguruan antolatuturiko bertso saioa. Azkue aita-semeen omenez eginiko jaialdian orduko bertsolari handiekin batera, *Arratiako Txori Txikia*-k ere abestu zuen, Bizkaiko bertsolaritza ordezkaturik:

⁶⁰ *Begitu*, 18, 2003, 7. or.

⁶¹ Euskal prentsan leku handia opetsi zitzaion jaialdiari: "Euzko-Olerti Eguna. Azkue´tarrei Gorasarria... ¡Gustijak Lekeitio´ra!" (*Euzkadi*, 1936-06-28, 1. or.)...

“Los que hacen llegar hasta el pueblo la belleza de Día de la Poesía serán los bertsolaris. Cinco de entre los mejores vates populares Basarri, Zepai, Txapel Uztapide y Uriarte hacen vibrar las fibras del pueblo eminentemente euskaldun de Lekeitio. La actuación de los notables bertsolaris llega a maravillar a aquellos simpáticos bizkainos, no tan hechos al parecer, a las palestras de los bertsolaris”⁶².

Gerran bertan, badakigu 1937ko Aberri Egunean (1937-03-28), Bermeon bertso saio handi bat egin zena, eta jaialdi horretan Alkain, Etxebarria eta Goikoetxearekin kantatu zuena Esteban Uriartek.

Amaitzeko, 1935eko I. Bertsolari Txapelketa Nagusira bueltatuko gara, berau dateke-eta Esteban Uriarteren bertsolari-bizitzan unerik garrantzitsuena. Tamalez, I. Bertsolari Gudu honen inguruko kroniketan aipamen gutxi ere gutxi agertzen dira Uriarteren gainean. Gorago aipatu dugun *Bertsolari Guduak 1935-1936* liburu kanonikoan Uriarteren bertso bakar bat agertzen da⁶³, Joseba Zubimendik emandako puntuari erantzuten diona, hain zuzen ere:


*Ekin zazu oraintxe
nere lagun zarra...
Orretako bai dala
orain ordu txarra.
Ba-dakizu aragiz
naizela malkarra,
kanturako amaitu
da nere indarra.*⁶⁴

⁶² “El VII magnífico Día de la Poesía Euskaldun”, *El Día*, 1936-06-30, 1. or.

⁶³ Saioan bertsolari bakoitzak hamahiru bertso puntuagarri abestu zituen. Liburuan, guztira, 1935eko txapelketako 45 bertso jasotzen dira. Hona hemen, bertsolariak eta bakoitzaren bertso kopurua: Basarri (9), Txapel (6), Kortatxo (6), Zepai (5), Txirrita (4), Alkain (3), Matxin (2), Sarasola *Lexo* (2), zortzi bertsolari (euren artean Uriarte) (1). Lau bertsolarik ez daukate bertsorik Joseba Zubimendik aukeraturiko sortan.

⁶⁴ *Bertsolari Guduak 1935-1936*, 45. or.

Nolako saioa egin zuen dimoztarrak Donostiako txapelketan? Abel Muniategik bosgarren-edo geratu zelakoa dauka: “1935eko urtarrilaren 20an Donostiako Kursaal-en egin zen Euskal Herri guztiko Txapelketara azaldu zen. Baziren hogeitabat bertsolari eta Uriartek bostgarren saria jaso omen zuen”⁶⁵. Esanda daukagunez, lau sari baino ez zituen banatu epai-mahaiak; baina Jose de Artetxe idazleak ere aurretxoan ikusi zuen dimoztarra sari zerrenda posible horretan: “Lástima grande que la escasez de medios (...) impidiera que mayor número de bertsolaris pudieran ser destacados en la calificación. Entre ellos Kortatxo, el de Lastur, el poeta bizkaino Uriarte, el azeptiano Txapel, los de Errenderi, Ordizia, Ayete, todos sin excepción”⁶⁶.



Lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusia (1935-01-20)

1: Alkain, 2: Kortatxo, 3: P. Zabaleta, 4: J. Zabaleta, 5: Sorozabal, 6: Etxeberria, eta 7: Uriarte. (Larralde eta Matxin ipartarrak falta dira, apur bat berandu heldu ziren-eta).

⁶⁵ *Jakin*, 1980, 14/15, 26. or.

⁶⁶ Artetxe, Jose de: “Una fiesta inolvidable. Alto exponente de nuestro ingenio y cultura”, *Euzkadi*, 1935-01-25, 1. or.

Esteban Uriarteren bertsopaper bi

Xabier Amurizak *Bizkaiko Bertsogintza I Izengabeak* liburu-ko 524-525. orrialdeetan, “Dimako idiari” izeneko sorta aipatzen du, eta Esteban Uriarterena izatea oso litekeena dela gehitu. Halaxe da, hona dakargun bertsopaperean ikusi daitekeen. Bertso-sorta hau Koldo Mitxelena Kulturuneko bibliotekan dago eta fitxa teknikoan esaten denez, Gregorio Mujikaren liburutegitik heldu zen bertara⁶⁷.

Lehenengo bertsopaper honi dagokionez, esan beharra dago Amurizaren liburuan agertzen den sortak zortzi bertso dituela⁶⁸, eta originala hamaika ahapaldiko sorta dela. Era berean, originaleko 8 eta 10. ahapaldiak nahastuta agertzen dira, baita lekuz aldatuta ere. Nahasiriko ahapaldiok sorta berriko 4 eta 5. bertsoak dira.

Bigarren sortari dagokionez, zera diosku Amurizak: “Beste bertso-paper interesgarri bat be heldu jaku, Alfonso Irigoienen artxiboari eskerrak. Batzuetan, errima nasai samarra badarabil be, bertso-sorta hau egin ebana bazen zeozer”⁶⁹. Sortaren izenburua “Agure zelosua” da, eta Irigoienen funtsatik batu zuen Etxanoko langile nekaezinak. Sorta hau ere Koldo Mitxelena bibliotekan dago, eta hau ere Gregorio Mujikaren ondarekoa zen⁷⁰.

⁶⁷ Honako hau dio fitxak: Egilea: Uriarte Esteban. Izenburua: “Berso berriak: Esteban Uriartek jarriak”. Notak: 1 o.; 32 cm; bertso-paperak; hasten da: “Laguntasuna eskatzen deutzat / Aita San Antoniori”; Gregorio Mujikaren liburutegitik etorritako alea. Editorea: Durango: Imp. De Ondaro, [19--?].

⁶⁸ Amurizak bere obran dakarren bertsoa Dimako Patxi Billaori jasoa da (Askoren artean: *Doinu Zaharren Inguruan*, UEU, Musika Saila, Bilbo, 1990, 17-18).

⁶⁹ Amuriza, Xabier: *Bizkaiko bertsogintza III. Gerra aurreko emoitza*, Bizkaiko Bertsozale Elkarteak, Durango, 2006, 183. or.

⁷⁰ Hona fitxa teknikoa: Egilea: Uriarte Esteban. Izenburua: “Bertzo berriak: Esteban Uriarte’k jarriak”. Notak: 1 o.; 32 cm; bertso-paperak; hasten da: “Tru-lau bertso jarri biarrik / aurkituten yat barrua”; Gregorio Mujikaren liburutegitik etorritako alea. Editorea: Bermeo: Imprenta de Gaubeca, [19--?].

Kasu honetan, sorta biak bat datoz bertso kopuruari dagokionez, hamazortzina ahapaldi dituzte-eta. Hala eta guzti ere, badago aldaketatxo bat, originaleko bederatzigarren bertsoa, bosgarren izatera pasa delako Alfontso Irigoienen funtsako bertsoan.

Hizkuntzari dagokionez, aipatuta daukagu Uriarteren joera garbizalea; batez ere, *Euzkadi* egunkarira bidalitako kolaborazioetan agertzen dena. *Eguna* egunkarian argitaratutako bertso-sortetan leunduta agertzen da joera hori. Bertsopaperetan, aldiz, bizkaiera natural eta bizia darabil Uriartek, ondo zekien-eta irakurlego berezia, herrikoiagoa, zena bertsopaperak erosten zituena; herri xehea, azken baten. Orrialdeotan ikus ditzake irakurleak aipatutako bertsopaper biak.

BERSO BERIAK

Esteban Uriartek jariak

1

Laguntasuna eskatzen deutzat
Aita San Antoniori
bere isonian jafi albaneis
berso pare bat edo bi,
berak egunak ikusten dogus
makinabat miragafi
euretariko bat gura neuke
papel onetan esafi.

2

Biskaiko baster, baster-bateko
Dima deritxon eñian
idi eder bat selan egon dan
nago esan biañian,
asi buruan eta atzera
iru metro daus neufian
amairu aña gogor gogofak
biribillian gañian.

3

Apatzofatik goiko palara
daukas bederatzia aña,
aureko beso biyen erdian
befis metro bat sabala,
lufian befis erdi tafaska
darabil bere bulafa
burna eta adar txikiak
kolores pinto «Nabafa»

4

Asko dirade mundu onetan
sortutako ganaduak
bañia meatzak eta banakak
orañi arte au languak,
asco esana parkatuko dauks
San Antonio Paduak
au bestekorik esdauko eurtan
Españisko erreñuak.

5

Bere pisua esdakit seinbat
esdodalako pisatu.
eguingo nauke ofetarako
eskubidiak banitu,
Eun ta larogua eñalde bñietz
gura' dandio jokatu
añigañisko nundia da ta
nok esdeu ingo sinistu.

6

Nor dan bere esan biaña daukat
berau loditu dauena,
apellidua Arriortua
Pedro da bere isona,

etxe bi daukas ofenta dauak
beria icugařena
ofes gañera esku artian
basñante ondo dauena.

7

Beti isanda fameliari
ganadu onen salia
antxiñetatik gueiago eida
etxe ofetan aguia,
orañi urte bi asi eutzien
ausoko batek obia
orduko faltak bardiñduteko
oiñguak dauko sobria.

8

Aste Santuan idi edeñau
eraman daude Bilbora
bertan ilteko uste betias
baña bisirik lotu da,
tamales dagos bera ilteko
sein dan ganadu edeña
orañdik gueiyaok ikusi daien
daruade Madrillera.

9

Es uste isan saña dutenik
oraitxe daukes bost urte
eta dau oindik biar dan legues
aguñetan safatute,
lengo etzian eguingo baleu
ofek beste urte bete
bereun eñalde baño gueiago
seguru koitxuko leuke.

10

San Isidroak selebretako
daruade Madrillera
ganadu edeñaurik au baño
an aguertuko ete da,
onen lusia onen sabala
onen gorputzen edeña
itxas ontzi bat dirudiela
atzetik eta auñera.

11

Neure sorion agur goso bat
Pedro Arriortuari
urango bere emastiagas
seme ta fameliari,
opa dautzu dan gusti gustia
ementxo dosu aguiri
olakotziak loditu sasus
datřen urterako bi.

BERTZO BERRIAK

Esteban Uriarte'k jarriak.

1

Iru - lau bertso jarri biarrik aurkituten yat barrua, min - gain zorrotzat dira medio galdu ez-deidan burua. Erri onetan ez-da besterik neure muñuraziño, jazo dan dana, txarra zein ona, garbi esatera noa.

2

Ama Karmengo errukiorra, erruki zaitte nigana, ondo dakizu motibo gabe txarto narabildiena. Gaixo bat dago persona baten, osatu ezin leikena, agure zar bat zelos beteta, dauen gaixorik txarrena.

3

Egun batian agure orregaz artu niola herbeta, gizon onen bat zala pentsaurik min-gain gozua dauko-ta esakera da konfianzia urtetan dala erreta, begira emen min gozo orrek zabaldu dausten konduta.

4

Zer zan motibo etxe orretan konfianzia artzeko, umore txarrez sarri kantau dot jente geyago batzeko. Txarri gorra bat eifi biar zala abere nik egiteko urrengo gero mostradorian jentia serbietako.

5

Neure bizian etxat aztuko zelan San Pedro gabian, kafia artzen neu ta lagun bat, alkarraz egon gilian gabon gustial esan-da gero, etxera urtei-erian, kontua paga ta eskatu nion kopa bat mostradorian.

6

Kopa orreri, atera-ta, ezarri neutsan eskua, agure zarrak barrutik diraust berba ganora bakua, beste batzuri bere esan dautset zuri bigarrenezkua, ezer edaten dotozanentzat mayan dagola lekua.

7

Onek entzun da gora-goraka barruak eusten irakin, Itandu neutsan: zer da gizona jazoten dana zurekin? motibo orrek zeintzuk dirian biar nenduke nik jakin, biyar goizean etorriko naz berba egiten alkarrekin.

8

Urrengo goiza eldu zan-eta juan nintzan ni zeugana, baita Lorentzo zeure kofiatu oindik bizirik dagoana, ak esan eutzun: — zer da Baitisfe ako emen jazo dana? erantzun zeuntsen santubat legez emen bakia dao dana.

9

Neure arrega etorri dan lez, gaur goizean neure etxera, bere arpegie ez dau ekarri bakezkuaren antzera, emen ez ei - deu aginduten-da atara ei - dozu kanpora, olan andria erabilteko motiboak zeintzuk dira?

10

Orrek kontuok esaten eurek ni egon nintzan alboan, testigorik an etzala biar, non difon berak beinguan. Orretarako erantzun neuntsen erazoya dan moduan, ni nator ona barko motibo zer dan jakiten klaruan.

11

Motibo txarrik etzala eta esanak parkatuteko, berak baten-bat insultau biar barrua deskargateko. Erantzun neutzun parkatute dao zer erain geyau ez dauko, gaur egingo dot juramentua, geyao ona ez sartzeko.

12

Orretarako erantzun zeunsten ez egin juramenturik, aurrerantziak etorri zaltze ez daukat zure kejarik. Neronek dodan buruko mifa gauza bat dala bakarrik, nere andriak ez daust egiten / amodiosko berbarik.

13

Zori-gaiztoko sarrerita nik eifi-nauen zure etxian, ordutik ona atsekabla sarri daukot biotzian. Olan zabalitez aspaldi ontan lfiori onura kentzian, igarri gabe ibilli barik zeutatz egurrak batzian.

14

Nire aurretik beste batzuek ziradan orko maixuak, esan zeuntsenak galdu deizela zure etxerako pausuak, orain nerekin izan ba-dire, urrengo pasadisuak, bere andria jan ez dagigun agure zar zelosuak.

15

Zer esan geyagoa badaukat bafia gordetan ditur barruan, arik jarriko dituguzela, onek likasi orduan. Zeure andria geuretzat dala sartu dautzue buruan, ez-jakifiteko gauzak esan-da jakifitekuen moduan.

16

Trumonadazko euri bat legez erri gustia herbetan, neure onura jan biarrian euren min-gain zitaletan, desgusto oyek artu ba-difut errurik baga ezetan, gure Jainkuak egunen baten jusgauko gaitu benetan.

17

ESTEBAN dala neure izena apelledu URIARTE, urte askotan ibillikoa jayo erriatik aparte, Onetariko desonra txarrik etxat zabaldu gaurarte, besten andriak gura izateko neuria daukat nik maite.

18

Gaur amazortzi bertzo berrigaz, orra nere despedida ez uste izan nagoala ni zeure andrial begira, ondo egiften paguak barriz olan izaten ba-dira, agure zarko zelosuari nok egin gauzak arira?

Txapelketa Nagusiak 75 urte betetzean, Poxpolin zaharrear kantatu zuten hogei bertsolariak omendu gura izan ditugu le-roon bitartez. Edozelan ere, bereziki, bertsolari apal biri zu-zendu nahi izan diegu omena, den-denek merezi dute baina, gure esker ona. Izan ere, euren xumean, txapelketan parte harturik, posible egin zuten bertsolaritzak aurre egitea, baita duintasun handiagoa lortzea ere. Gaurko bertsogintza arrakas-tatsuak asko zor die orduko aitzindari jatorrei.

Gauza asko aldatu dira azken hirurogeita hamabost urte ho-netan bertsolaritzan: bertsolari baserritarrak unibertsitario bila-katu dira; brusa luzeak *forro polar* bihurtu zaizkigu; Kursaal zaharreko Poxpolin areto apala, *Bilbao Exhibition Centre* erral-doiak ordezkatu du; gizalabak oholtzan ez egotetik txapel-dun izatera pasatu dira... Bertsok, baina, hortxe dirau, hizkuntza zaharrear sustraituta beti ere: “beti ur berria edaten, betiko itu-rrri zaharretik”.

Bibliografia

- Abarrategi, Prudentzio: “Bertzo Berriyak. Gora Paulino Uzkudun, Au-pa”, Bertsopapera, Etxenagusia, Bilbo, [19--?].
- : “Bertso Berriak. ¡Gora Paulino Uzkudun!, Aupa”, Bertsopapera, Zunzunegi, Beasain, 1928.
- : “Bertso berriyak”, Bertsopapera, Imp. Económica, Renteria, [19--?].
- : “Oraingo neskatxari”, *Bertsolariya*, 23, 1931-02-21, 6. or.
- : “Neskatxa ederra nago ta...”, *Bertsolariya*, 33, 1931-05-01, 4-5.
- Amuriza, Xabier: *Bizkaiko Bertsogintza I. Izengabeak*, BBE-AEK-Zen-bat Gara, Zornotza, 1995.
- : *Bizkaiko Bertsogintza III. Gerra aurreko emoitza*, Bizkaiko Ber-tsozale Elkarte, Durango, 2006.
- Aranbarri, Iñigo: *Gure mendea. Ehun urte euskal kulturaren*, Argia, Donostia, 1999.
- Aritzimuño, Jose *Aitzol*: “Qué es el bertsolari? Hoy, en el día de su consagración”, *Euzkadi*, 1935-01-20, 12. or.

- : “Bertsolaria, nor degu?” (Hitzaurrea) in Zubimendi, Joseba: *Bertsolari Guduak 1935-1936*, Euskaltzaleak, Donostia, 1936.
- Artetxe, Jose de: “Una fiesta inolvidable. Alto exponente de nuestro ingenio y cultura”, *Euzkadi*, 1935-01-25, 1. or.
- Askoren artean: *Doinu zaharren inguruan*, UEUren Musika Saila, Bilbo, 1990.
- : *Arratiako idazle aitzindarien antologia*, Artea, 2005.
- Dorronsoró, Joanito: *Bertsotan 1789-1936*, GIE, Donostia, 1981.
- Egaña, Iñaki: *Quién es quién en la Historia del país los vascos*, Txalaparta, Tafalla, 2005.
- Enbeita, Balendin: *Bizitzaren joanean*, Elkar, Donostia, 1986.
- Esparza, Iñaki / Larrea, Angel: *Arratiako idazle aitzindariak (in memoriam)*, Arratiako Udalak-BBK, Oñati, 2004.
- Esparza, Iñaki: “Arratiako bertsolaritza azken mendeetan I”, *Begitu*, 15, 2003, 6-7.
- : “Arratiako bertsolaritza azken mendeetan II: Esteban Uriarte”, *Begitu*, 18, 2003, 6-7.
- : “Arratiako bertsolaritza azken mendeetan III: Esteban Uriarte”, *Begitu*, 20, 2003, 16-17.
- Estankona, Igor: *Basilio Pujana*, Bidegileak, 47, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2007.
- Garzia, Joxerra: “El bertsolarismo del siglo XIX al XXI” in Urkizu, Patri (zuz.): *Historia de la Literatura Vasca*, UNED Ediciones, Madril, 2000, 402-479.
- Jauregi, Koldobika *Jautarkol*: “Bertsolari-Eguna dala-ta”, *Argia*, 1935-01-20, 2. or.
- : “El Día del Bertsolari”, *El Día*, 1935-01-20, 1. or.
- Lekuona, Manuel: “Bertsolariaren Eguna”, *Argia*, 1935-01-20, 1. or.
- : *Literatura oral vasca*, Auñamendi, Donostia, 1965.
- Lekuona, Juan Mari (E. Perez Gaztelu, A. Toledo, eta E. Zulaikaren edizioa.): *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*; Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1998.
- Muniategi, Abel: “Bertsolaritza Bizkaian”, *Argia*, 600, 1974, 7. or.
- : “Bertsolaritza Bizkaian”, *Jakin*, 14-15, 1980, 17-19.

- : *Bertsogintza Bizkaian: (koplatik bertsora)*, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Bilbo, 1995.
- Olaizola, Manuel *Uztapide: Lengoa egunak gogoan (I-II)*, Auspoa, Itxaropena, Zarautz, 2. ed., 1975.
- Onaindia, Santiago: *Bertso berri ta kanta zar I*, 1957.
- : *Gure bertsolariak*, Gráficas Bilbao, Bilbo, 1964.
- : *Gure Urretxindorra*, Ekin, Buenos Aires, 1971.
- Tapia, Joseba: *Agur Intxorta Maite. 1936-1937ko gerrako kantak*, CDa, Gaztelupeko Hotsak, Soraluze, 2001.
- Uriarte, Esteban *Utarre*: “Bertso berriak: Esteban Uriartek jarriak”, Bertsopapera, Imp. De Ondaro, Durango, [19--?].
- : “Bertzo berriak: Esteban Uriarte´k jarriak”, Bertsopapera, Gaubeka, Bermeo, [19--?].
- : “Ixidor Deunez Bermeo´n”, *Euzkadi*, 1920-05-28, 6. or.
- : “Neure anaieari”, *Euzkadi*, 1928, 4.831, 5. or.
- : [Zer da dabillen eztabaidian], *Euzkadi*, 1929-06-21, 4. or. (sarrera-txoa, prosaz).
- : [Zugatz igali mendian eta], *Euzkadi*, 1930-03-18, 5. or. (sarrera-txoa, prosaz).
- : [Gexo gogor bat], *Euzkadi*, 1932-01-09, 4. or.
- : [Biotz andiko kistar-betia], *Eguna*, 1937-01-04, 4. or.
- : “Neure adizkide *Basarri´ri*”, *Eguna*, 1937-01-28, 2. or.
- : [Lo zorro baten nenguan baña], *Eguna*, 1937-02-04, 4. or.
- Urkiza, Julen: “Bertso eta olerkien hemeroteca”, <http://urkiza.armiarma.com>.
- X.X.: “El VII magnífico Día de la Poesía Euskaldun”, *El Día*, 1936-06-30, 1. or.
- Zavala, Antonio: *Bosquejo de Historia del Bersolarismo*, Auñamendi, Donostia, 1964.
- : *Lexo bertsolaria*, Auspoa 79-80-81, Izarra, Donostia, 1968.
- : *Patxi Erauskin bertsolaria I-II-III*, Auspoa 131-132-133, Tolosa, 1978.
- : “Bertso paperak”, *Jakin*, 14-15, 1980, 115-133.

—: *Auspoaren auspoa I*, Sendoa, Oiartzun, 1996.

—: *Auspoaren auspoa IV*, Auspoa-GFA, Donostia, 2006.

Zubimendi, Joseba: *Bertsolari Guduak 1935-1936*, Euskaltzaleak, Donostia, 1936. Bigarren edizio fakzimila: Gipuzkoako Foru Al-
dunia, Donostia, 1985.

—: *Bertso minez* (K. Izagirrereren edizioa), Alberdania, Irun, 2002.

Iñaki Sarriugarte Irigoien